

## Alardearen historia: sarrera laburra

San Martzial alardea egiteko arrazoa zein den aldatu egin da urteetan zehar; izan ere, boterean izan diren ideologia nagusiak aldatuz joan diren adina aldiz aldatu da ideia hori. Horrela, frankismo garaian, adibidez, frantsesen aurkako *“garaipen espainiar peto-petoa”* ospatzen zen. Aldiz, 80ko hamarkadan alardea foru-milizien oroitzapena zela zabaldu zen. Garai bakoitza alardearen sorrera zein zen egokitzen saiatu da, garaikideen onespina izan dezan. Dejando de lado esa polémica, parece aceptado por todos los autores que el alarde se renueva y folkloriza totalmente a partir de 1881, como consecuencia de la última guerra carlista y con el objetivo declarado de que los turistas lleguen a la Ciudad atraídos por su vistosidad.

Ika-mika hori albo batera utzita, badirudi idazle gehienek onartzen dutela 1881 urtetik aurrera alardea berri eta folklorizatu egiten dela, azkeneko guda karlistaren ondorioz, eta aitortutako helburu batekin, alegia, turistak hirira etortzea alardearen ikusgarritasuna erakarrita.



[Alarde 1935.](#) © [CC BY-SA](#): Kutxa fototeka. Argazkia: Ricardo Martín

Alarde berri hori erritualizatu egiten da, pixkanaka finkatzen ari da, gizarte-mailan geruzatzen da, eta ezkutuko hainbat esanahi hartzen ditu, oso finak, baina garrantzitsuak, edozein irundarrek ezagutzen dituenak, baina definitzen zailak direnak..

Hala ere, 1996. urtean emakumeak sartzen saiatu ziren Alarde hura deskribatzen saiatu gaitezke, urte hartatik aurrera sortutako hainbat gatazka paraleloak ulertzen lagungarri izan baitaiteke (ordutegia eta ibilbidearen inguruko liskarra, esate baterako),

Alardea **artxeroen eskudrarekin** hasten da, unitate berezia, itxura bikaineko gizonak osatuta - altuera nahitaezko baldintza da bertan parte hartzeko - eta zangak irekitzeko tresnak eramaten dituztenak. Kantinerarik gabeko unitate bakarra da hau, eta kapitaina izan ordez, kaboa du; unitate honen kideek ez dute Alardeko aurreko egunetan entsegurik egiten, eta osatze-ordena eta unitatean sartzeko prozedura sinboloz beterik daude. Bertako kidea izatea ohore handia eta sinbolikoa da.



[Cía Bidasoa • Alarde 1935.](#) © [CC BY-SA](#):Kutxa fototeka. Argazkia: Ricardo Martín

Ondoren, **Danborrada, Musika Banda eta Zalditeria datoz, Jeneralaren lau laguntzaileekin** batera. Hortik aurrera, infanteriako konpainiak - historikoki zenbakia aldatu da, baina 80ko hamarkadatik 15 dira-, komandantearen agindupean, eta denek barne-estruktura berarekin: kapitaina buruan, ofizialak eta ofizialordeak; konpainiaren bandak ematen dio hasiera desfileari, txirulari, erredoble eta danborrak osatuta.

Jarraian kantinera dator, konpainian dagoen emakume bakarra, bi senide edo lagun bere alboan doazela, eta horien ondoren, armak daramatzaten kideak. Konpainia horietako bat, **Bidasoa**, hain zuzen, berezia da, **hiriko bandera eramaten du eta**.

Horien atzetik, **Artilleria** unitate bat. Kantinera zaldi gainean doala -1952. urtera arte kainoiaren aurreko trenaren gainean zihoan-.

Artilleriaren atzetik -emozioei dagokienez badirudi hor bukatzen dela alardea- udalbatza (edo kabildo sekularra), eta 80ko hamarkadara arte, eliz-kabildoa.



*Artillería • Alarde 1935.* © [CC BY-SA](#): Kutxa fototeka. Argazkia: Ricardo Martín

1996. urteko alarde hura, eta horren aurretik egin zirenak, ekainaren 30eko **goizeko 8:15ean**, gutxi gorabehera, **atera ziren Urdanibia Plazatik** (ordu hau partaide-kopurura egokituz joan da, derrigorrezkoa baita Jenerala San Juan Plazan goizeko bederatzietan sartzea). San Martzial egunaren bezperan, Jeneralak, zalditeriak lagunduta, tropak ikuskatu ditu konpainia bakoitzaren auzoan, eta aurreko egunetan, konpainiek entseguak burutu dituzte hiriko kaleetan barrena. Egia esateko, ekainaren 20tik aurrera kaleetan dago Alardea, eta ez da soilik ekainaren 30eko ekitaldi nagusia.

Beraz, 8:15ean **Arrankada** egiten da, tentsio emozional handiko unea; ibilbide motz baten ondoren, San Juan Plazara iristen da Alardea, bertan, tropak elkartzen dira Jeneralaren zain. Tropicaren ardura hartzen duenean, Jeneralak ohorezko deskargak egiteko agindua ematen du eta kabildo sekularrak -hau da, zinegotzien jarraigoak-elizarantz doan troparekin bat egiten du. Bertan, berriro elkartzen dira tropak eta deskargak egiten dituzte, eta elizako kabildoak egiten zuen bat Alardearekin - 80ko harmakadatik ez dute Alardean parte hartzen, Elizaren ustez jaia behin betiko sekularizatu egin baitzen.

Orain Alardea osatua dago, eta San Martzial basilizarantz doa, 1522. urtean Aldabe mendateko gudua zela eta egindako botoa betetzeko asmoz. Hala ere, Alardeko partaideetako batzuk baino ez dira mendian egiten den mezetara joaten, gainerako guztiek mendiaren behean hausten dituzte lerroak, Ama Xantalen Ermitan.

Arratsaldeko 18:00etan, Alardeak alderantzizko ibilbidea egiten du, nahiz eta 80ko hamarkadatik, desfilea hiriaren zabaltzan barrena igaro.

# Hau da, gutxi gorabehera, 1997. urtera arte Irunen gertatzen zena ekainaren 30ean

Informazio gehiago:

[www.alardepublico.org/eu/historia-introduccion.php](http://www.alardepublico.org/eu/historia-introduccion.php)

[www.alardepublikoa.eus/eu/historia-introduccion.php](http://www.alardepublikoa.eus/eu/historia-introduccion.php)